



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 12an

49 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena. Aurkeztutako zuzenketak (7. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

—Eskoletako liburutegiak berritzeko plana (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza politika berrikus dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eurovestir, SA enpresaren jardunari eta enpleguari eutsi diezaien, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Francoren garaiko sinboloak kentzeko premiatzen da, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (12. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ospitaleak berritzeko plan bat egin dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberriko eskualdeko jarduera eta enplegua mantentzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sare publikoko ospitaleetan RU 486 botika jar dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza-ugalketarako hainbat bide osasun-presazioen artean sartzeko neurriak har ditzan. Osasun Batzordeak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruzko galdera, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egin (17. or.).
- SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruzko galdera, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak egin (18. or.).
- Hainbat espezialitatetako itxaron zerrendei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak egin (18. or.).
- Eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruzko galdera, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak egin (19. or.).
- Nafarroako Gobernuaren giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruzko galdera, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak egin (20. or.).
- Aranguren eta Eguesibarko udalez gairako planari aurkeztutako alegazioen ebazpenari buruzko galdera, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak egin (21. or.).
- Autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruzko galdera, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak egin (22. or.).
- AHTa dela-eta Aragoiko Gorteei lortutako akordioari buruzko galdera, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak egin (23. or.).

G SAILA:**Txostenak, Deialdiak eta Parlamentuko Informazioa:**

- Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Gelazain Nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia. Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda (24. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina aldatzen duena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, nekazaritzako finantzaketari buruzko lege mailako xedapenen testu bategina aldatzen duen Foru Lege proiektuari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2000ko maiatzaren 10ko 39 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

4. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa

4. artikuluko bigarren idatz-zatian adierazten da mailegu edo kredituei, hobaria aplikatutakoan, gutxienez ere 100eko 1,5eko korritu-tasa ezarriko zaiela.

100eko 1,5 horren ordez 100eko 1 jartzea proposatzen dugu.

Zioak: Korritu tasetarako zortzi puntura arteko dirulaguntza emateko adierazi den borondatea eta egungo finantza-merkatuaren errealitatea ezkontzea.

2. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

4. artikulua bigarren idatz-zatiari ondoko lerokada gehitzeko zuzenketa

“Korrituetarako hobarien laguntza mota –egun 100eko 1,5ean ezarrita baitago maileguak ituntzeko gutxienezko zenbatekoa– iristeko modukoa ez

den kasuetan, korritu-tasa txikiak izateagatik aplikatu gabe gelditzen den hobariaren zatia zuzeneko dirulaguntza baten bitartez ematea.”

Zioak: Sektoreari laguntzeko borondate politikoa eta sektore horrek benetan jasotzen duen laguntza uztartzea.

3. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

4. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa

“4. artikulua. Onurak.

3. Nafarroako Gobernuak arrisku-kapitaleko sozietate bat sortuko du, eta hartan sartzeko aukera emanen die nahi duten finantza entitateei, maiatzaren 17ko 1257 Europako Erkidegoko Erregelamendua aurreikusten duen bezala, nekazaritza produktuen eraldaketa eta merkaturatze proiektuen finantzaketan parte hartzeko.”

Zioak: Europako Erkidegoko legeek nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntzeko ematen dituzten tresnak guztiak erabiltzea.

4. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA **FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Gehitzeko zuzenketa.

Xedapen iragankor bat gehitzea. Hona testua:

“Lehen xedapen iragankorra.

Egungo laguntza-mailak mantenduko dira, lege berri hau arauz garatzen ez den bitartean eta honen irizpideen aurkakoak ez badira.”

Zioak: Sektorean eragin negatiboa duten lege-hutsuneak saihestea.

5. ZUZENKETA

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA
FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa

Xedapen iragankor bat gehitzea. Hona testua:

“Bigarren xedapen iragankorra.

Nafarroako Gobernuak gizarte intereseko deklaraturako lurra erosteko laguntzak lege indardunaren markoan mantenduko dira Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko Foru Legea aldatzen ez den bitartean.”

Zioak: Lurra erosteko laguntza Europako Erkidegoak onartutako gauza da, lurzati berrantolamenduko programen barrenean; beraz, Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko Foru Legea aldatzen ez den bitartean, gure ustez, ezin zaio kalterik egin sektore honi.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu du: “Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa”.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen partaidetza (zuzenean edo zeharka) duten enpresetan 35 orduko lanaldiaren ezarpena laguntzeko 6/1999 Foru Legean biltzen diren neurri publikoak aplikatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeak neurri-multzo garrantzitsua biltzen du 35 orduko lanaldia Administrazio Publikoan, enpresa publikoetan eta sektore pribatuan aplikatu eta sustatzeko.

“Foru Komunitateko produkzio- eta zerbitzu-sektore guztietan lanaldia berrantolatu eta murrizteko” Nafarroako Gobernuak hartutako sustapen-neurrien eboluzioa, eta lege-gorabeherak –neurri horiek Foru Lege horretako 5. artikulua aipatzen ditu, eta, horien arabera, Foru Gobernuaren eginkizuna lan-banaketaren sustatzaile hutsa izatea besterik ez da– alde batera utzirik, Gobernuak, azkarrago edo motelago, hobeto edo okerrago, 3. artikuluko agindua betetzen ari da; hain zuzen ere, asteen 35 orduko lanaldia (urtean 1592 ordu), ezartzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei 2000. urterako eta hurrengoetarako.

Beraz, baieztatu daiteke 3. artikuluko (Administrazio Publikoa zentzu hertsian) eta 5. artikuluko (sektore pribatua) agindua aurreikus daitezkeen bide logikoei jarraituz garatzen ari dela.

Ezin dugu gauza bera esan 4. artikuluan edukari buruz. Artikulu horrek ahalegina egiten du neurri hura enpresetara hedatzeko, “baldin eta

Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek parte-hartze maioritarioa badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka”, eta 5. artikulua. Ondorioa, gaur egun, hauxe da: 35 orduko lanaldia aplikatzen zaie “Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileei”, baina ez enpresa publikoetakoei edo Nafarroako Administrazio Publikoek parte-hartze maioritarioa duten enpresetakoei.

Horren arrazoia gure Komunitateko Administrazio Publikoen nagikeria baizik ez da, Nafarroako Gobernua guztien gainetik dagoela; izan ere, 3. artikulua horretara “behartuta”, neurri horiek Administrazio Publikoetan aplikatzen dituzte –Negoziazio Mahai Nagusian itunduz–, baina ez dute beharrik sentitzen 4. artikulua testu jarraituz beren buruari sustapenik egiteko, eta ez dute horrelakorik aplikatzen enpresa publikoetan edo parte-hartzea daukatenetan; horien zuzendaritzan eta antolaketan, Administrazio Publikoan bertan daukaten aginte-ahalmen bera daukate, eta, agian, handiagoa.

Indarraldi laburra izan duen arren, Lege horren edukia egokitzea komeni da, enpresa publikoetako langileek enplegatu publikoekin alderatuz jasa-ten duten diskriminazio bidegabe eta desegokia saihesteko. Izan ere, bi kolektiboek “enplegu-emai-le” bera daukate, eta euren lanaren xedea ere berbera da, zerbitzu publikoa.

Logikarik gabeko egoera horri aurre egiteko asmoz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Lege Proposamen bat aurkeztu zuen, helburu gisa honako hauek zituena: gaur egungo 3. artikulua onorioak gaur egungo 4. artikulua ukitutakoei hedatzea, batetik, eta kapitalean Foru Komunitateko Administrazioaren, toki entitateen eta haien menpeko organismo autonomoen parte-hartze maioritarioa zuzenki nahiz zeharka daukaten enpresetakoei ere 35 orduko lanaldia aplika dakien lortzea.

Alabaina, maiatzaren 24ko Osoko Bilkurak bazter utzi zuen proposamen hori, ezin izan baitzen behar adinako gehiengo politikorik erdietsi. Kasu batzuetan, proposamena egokia ez zela esan zen, toki-autonomiaren konstituzio-printzipioaren aurkako erasoia izan litekeela argudiatuz; izan ere, pro-

posamenaren aurkakoek esan zuten, 35 orduko lanaldia toki-entitateen parte-hartze maioritarioa daukaten enpresetara ere hedatu nahi baitzen.

Azken argudio hori kontuan izanik –gainontze-koarekin ez dago ados proposamena egin duen taldea–, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako proposamen hau aurkeztu du, bere helburua izanik 3. artikulua neurriak 4. artikulua ukitutakoei hedatzea, toki-korporazioen parte-hartzea daukaten enpresak kanpoan utziz. Sektore pribatuari dagokionez Gobernuari galdetzen zaion “sustapen” orokorraz beste inolako arretaren xede ez lirateke izan enpresa horiek, gai honetan.

Artikuluak

3-bis artikulua berria. Foru Komunitateko Administrazioak eta bere menpeko organismo autonomoek zuzenean edo zeharka kapital-partehartze maioritarioa duten enpresetan, martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legearen hirugarren artikuluan adierazitako neurrian eta bertan zehazturikoari jarraituz aplikatuko da lanaldiaren berrantolaketa eta murrizketa.

Negoziazio Mahai Nagusiari buruz 6/1999 Legeko hirugarren artikulua egiten duen aipamena ulertuko da enpresetako zuzendaritzen eta euren langile-ordezkaritzen arteko lan-itunetarako bilerekin buruz egina dela.

4. artikulua testu berria. 1. Nafarroako Gobernuak, martxoaren 16ko 6/1999 Foru Legeko 5. artikuluan esaten denaren arabera, lanaldiaren berrantolamendua eta murrizketa sustatuko ditu enpresetan, baldin eta Foru Komunitateko Administrazioak, toki entitateek edo haien menpeko organismo autonomoek partehartzea badute aipatu enpresen kapitalean, zuzenean edo zeharka.

2. Era berean, aparteko ordu mugatzea euren gain hartuko dute.

Azken xedapenak

Azken xedapena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunen hartuko du indarra. Hala ere, ordu zenbaketa eta egokitapeneko ondorioak 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu.

Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2000ko urtarrilaren 31ko 10 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ZUZENKETA

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Lehenbiziko eta bigarren artikulua ordezteko zuzenketa.

Bietan, gaztelaniazko bertsioan, "... en las lenguas vascuence, catalana y gallega..." dioen tokian, ondokoa esan behar du: "...en las lenguas vasca-euskara, catalana y gallega..."

Zioak: Proposamena hobeki idaztea.

2. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Lehenbiziko artikuluan ordezpena egiteko zuzenketa. Hona proposatzen dena:

Artikuluaren lehen lerroetan "Aurrerantzean euskaraz, katalanez eta galegoz ere jaulki eta

kaleratu beharko dira" dioen tokian, ondokoa esan behar du: "Aurrerantzean gaztelaniaz besteko gainerako hizkuntza ofizialetan egonen dira".

"Baina hori ez da eragozpen izango..." hitzetatik hasi eta artikulua bukatu artekoaren ordeztzeko. Beste zigilu-jaulkipen batzuk ere egin ahal izanen dira, horretarako justifikazioa dagoenean, autonomi estatuetan babestuta dauden beste hizkuntza batzuetan.

Zioak: "...gaztelaniaz besteko gainerako hizkuntzak..." esapideak Konstituzioari egiten dio erreferentzia; zehatzago ematen du horrek lege testu batean.

3. ZUZENKETA

UNION DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluan ordezpena egiteko zuzenketa. Hona proposatzen den testua:

Posta-zigilu berriak eta beste posta-gai guztiak aurkeztean egiten den publizitate instituzionalak berariaz aipatu beharko du, Estatuko eleaniztasuna islatzearren, gaztelaniaz besteko gainerako hizkuntzak erabili direla.

Zioak: "...gaztelaniaz besteko gainerako hizkuntzak..." esapideak Konstituzioari egiten dio erreferentzia; zehatzago ematen du horrek lege testu batean.

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Eskoletako liburutegiak berritzeko plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000 ekainaren 5ean eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 2000ko maiatzaren 25ean, eskoletako liburutegiak berritzeko plana bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan.

Horiek horrela, Eledunen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Eskoletako liburutegiak berritzeko plana tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Hezkuntza eta Kultura Batzordeak emanen duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

(Oharra: Planaren testua foru parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hizkuntza politika berrikus dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua hizkuntza politika berrikus dezan premiatzen duen aurkeztutako mozioaren biderapena onetsi eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea. Mozio hori jabelduraren ondorioa da eta, Erregelamenduko 183. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, mozioak arautzen dituen Biltzarraren Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Parlamentuko Osoko bilkuran eztabaidatu dadin; mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskararen Legea aplikatzeko aurrera eramaten duen hizkuntza politika berrikus dezan.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, Euskararen Legea aplikatzeko Nafarroako Gobernuak egin behar duen hizkuntza politikari buruz aurkeztutako jabeldurak ez du balio izan Gobernuak gai horri buruz duen iritzia argitzeko. Nafarroako Parlamentuak oraindik ere ez daki zer aldatu nahi duen Gobernuak aplikatzen ari den hizkuntza politikan, eta, batez ere, aldaketa hori nola egin nahi duen. Nahiz eta orain dela gutxi gobernuak esan duen ez dagoela Euskararen Legea aldatzearen alde eta, bestetik, euskarazko unibertsitate ikasketak arautu egin

behar direla, Nafarroako Gobernuak ez du proposamen zehatzik iragarri Euskararen Legea garatzeko egun gauzatzen ari den hizkuntza politika aldatzeko.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legearen alde duen konpromisoa berretsi behar du, Konstituzio-multzoaren garapena den aldetik eta Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza aniztasunaren bilgunea delako; bestalde, deklaratu behar dugu Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politika sakonki berraztertu behar dela, gure ustez, bereziki politika hori Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate soziolinguistikoa izaten ari den eraginari dagokionean. Izan ere, eragin hori ez da izaten ari Euskarari buruzko Foru Legeak indarrean jarraitzearen alde gaudenok eta Lege hori ez tresna politiko gisa baizik eta elkarbizitzarako eta aniztasuna errespetatzeko aplikatu dadin nahi dugunok nahi genukeena.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz, aipatu jabelduran azaldu genuen bezala, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika sakonki berraztertu behar da. Zehazki, unibertsitatez besteko irakaskuntzari dagozkion alderdietan berraztertu behar da Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika, bai ikastetxeetako programak, orientabideak eta gaiak ordutegietan duten banaketa behar bezala kontrolatzeko eta bai eremu euskaldunean euskarazko irakaskuntzaren egoera arautzeko eta haur hezkuntzari doakionean ere; hain zuzen ere, haur hezkuntza egungo sare hirukoitzetik (ikastetxe publikoak, ikastetxe pribatu itunduak eta ikastola itunduak) kanpo utzi behar da. Unibertsitateko irakaskuntzei dagokienez, Nafarroako Unibertsitate Publikoak arlo horretan dituen betebeharrak arautu behar dira. Bestalde, Nafarroako euskalkiak errespetatu eta babestu behar dira. Azkenik, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen

erabilera arautu behar da: benetan elebidunak izan behar diren lanpostuak finkatuko dira, eta berraztertuko da euskara merezimendu gisa balioetsi behar ote den, bai eta azken urte hauetan merezimenduen baremoetan euskararen aplikazioak administrazio publikoetako maila ezberdinetan ekarri dituen ondorioak ere.

Oro har, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ez du uste aipatu zuzenketa eta egokitzapenek, Nafarroako Gobernuak aplikatzen duen hizkuntza politikan egin beharko liratekeen horiek, Euskarari buruzko Foru Legea aldatzeko premia dakartenik; horrenbestez, ez gaude Euskarari buruzko Foru Legea aldatzearen alde.

Hori guztia esan ondoren, talde sozialistak hizkuntza politikari buruzko jabelduran maiatzaren 24an defendatutakoa laburtzeko eta ikusirik Gobernuak haren eztabaidan defendatu zuen jarrera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak uste du komenigarria dela mozio honetako erabaki proposamenak mugatzea ondokoetatik ondorioztatzen ahal diren printzipio orokorretara: alde batetik, Gobernuak adierazi zituenak; bestetik, euskararen erabilera eta sustapena politikatik kanpora ateratzeko helburua izaki Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika berraztertzeko bidean aurrera pausuak emateko eta balizko diskriminaziorik gabe herritarren eskubideak bermatzeko gehiengo nahikoa osa dezaketen Parlamentuko taldeek adierazi zutena.

Horrenbestez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Parlamentuko Osoko Bilkurari ondoko erabaki proposamena onar dezan proposatzen dio:

1. Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legearekin duen konpromisoa berresten du, Konstituzioak hizkuntza politikaren arloan agindutakoaren Nafarroako Foru Komunitaterako aplikazioa eta garapena delako eta gure erkidegoaren hizkuntza aniztasunaren bilgunea delako. Horrenbestez, defendatzen dugu gaztelania Nafarroako eta nafar guztien hizkuntza propioa eta ofiziala dela, eta euskara ere eremu euskaldunetako hizkuntza propioa eta koofiziala dela, Euskarari buruzko Foru Legeak ezarritako terminoetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aplikatzen ari den hizkuntza politikan zenbait zuzenketa eta egokitzapen egin ditzan funtzio publikoan sartzeari buruzko alderdietan, beharrezkoak ez diren kasuei eta herritarrek baztertzeari ekar dezaketenei kasuei dagokienez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Unibertsitateko irakaskuntzetan euskarazko irakaskuntza arautzeko lege proiektu bat igor dezan, euskararen eta euskarazko irakaskuntza Nafarroako Unibertsitate Publikoan aplikatzeko markoa argitzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren jarduketak egin ditzan eremu euskalduneko ikastetxeetako programak, orientabideak eta ordutegiak behar bezala gainbegiratzeko, eta eremu ez-euskaldunetan euskarazko irakaskuntzaren egoera arautzeko.

Iruñean 2000ko maiatzaren 29an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eurovestir, SA enpresaren jardunari eta enpleguari eutsi diezaien

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eurovestir, SA enpresaren jardunari eta enpleguari eutsi diezaien".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria, Lan, Mertakaritza eta Turismo Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean eztabaida dadin.

"Eurovestir, S.A." enpresako ordainketak eteko prozesuaren baitan, datorren ekainaren 8an hartzekodunen batzarra egingen da. Bertan, enpresaren erabateko likidazioari ekingo diote.

Bada, enpresako ondasunak era ordenatuan likidatu ahal izateko, horrek hartzekodunen artean euren ekoizpen instalazioen sakabanaketa ekidinen baima, enpresako langileek beraien kontratuak amaitzeko erabaki bat sinatu zuten Lan Auzitegian. Horrela, etorkizun hurbilean eta enpresaren proiektu berri batekin, berriz ere jardunean hastea ahalbidetu nahi dute eta baita enplegua salbatu ere.

Baina langileek Eurovestir enpresako jarduera eta enplegua salbatzeko egin duten ahalegina eta

erakutsi duten erantzukizunaren zentzua ikusita ere, Nafarroako Gobernuak ihes egiten jarraitzen dio Erriberriko fabrikaren etorkizunaren arazoari eta krisiari konponbide eragingarriak bilatzeko erantzukizun eta konpromisoak hartzeari.

Izan ere, langileek enpresaren likidazioa era ordenatuan egin ahal izateko euren kontratuen amaierak sinatu eta hurrengo egunean, Lan arloko zuzendari nagusia Gobernuak Eurovestirreko langileei beste lanpostu bat emateko enplegu-antena bat bultzatzearen aurka agertu zen. Halaber, ukatu egiten zuen Nafarroako Gobernuak enpresa proiektu berri bat sortzen eta bilatzen garrantzizko zeregina izan behar zuenik.

Argi eta garbi esateko, Eurovestirrek Erriberri duen fabrikari eragiten dion kasuan, badirudi Nafarroako Gobernuak ez dituela abiarazi nahi ekintzak behar besteko borondatez eta erabakimen politikoz; adibidez, enplegu-antena edo beste enpresari batzuk bilatzea. Ekintza horiek, baina, garatu izan dira bestelako enpresa krisietan eta arrakasta izan dute.

Horregatik, IUN-NEB Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du "Eurovestir, S.A." enpresak Erriberri duen fabrikako jarduera eta enplegua mantentzearen bere esku dituen ekintza guztiak berehala burutu ditzan, enpresarako proiektu berri bat bilatzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzen da enpresa-batzordeari, garaiz, ekintza horien berri eman diezaion.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du "Eurovestir, S.A." enpresako langileekin enplegu-antena bat abiaraztea negoziatu eta erabaki dezan. Helburua, langile horientzat irtenbide bat bilatzea da, ordainketak etetearen ondorioz beraien lanpostuak galdu baituzte.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 30ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Francoren garaiko sinboloak kentzeko premiatzen da

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Francoren garaiko sinboloak kentzeko premiatzen duen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Mozioa, horren bidez premiatzen da Francoren garaiko sinboloak kentzeko eraikin ofizialetatik, eta udalei proposatzen zaie 36ko Frankoren aldeko matxinada militarreko protagonisten ohoretan dauden kale eta plazetako izenak alda ditzaten.

1936ko uztailaren 18an, boterean influentzia handia zuen militarren talde batek estatu kolpea eman zuen; hiru urteko gerra baten ondoren Francoren diktadura ezarri zen. Zuzenean guda-tokia izan ez bazen ere, Nafarroan milaka eta milaka nafar hil edo desagertu ziren aldi hartan eta ondoko errepresio garaietan. Hildako horien artean, irabazleen aldean gertatu zirenak gurutzada lorioseko martiri gisa goraiatuak izan ziren. Gainerakoak bazter utzi zituzten, eta difamatuak eta jazarriak ere izan ziren. Beste milaka batzuk erbesteratu joan beharrean suertatu ziren.

1999ko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamentuak erabaki proposamen bat onetsi zuen militarrek legezketasunaren aurka, hau da, II. Errepublikako instituzioen aurka, egini-ko matxinada militar faxista gaitzesteko.

Parlamentuak, halaber, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen diasporako nafarrei buruzko azterlan bat egiteko eta material dokumentalak berreskuratzeko, fondo bat osatzeko balio izan zezaten; erbesteratuak eta horien oinordekoen eskubideak berreskuratzeko behar diren ekimenak aurrera eramateko; eta, azkenik, laguntza-fondo bat eratzeko erbesteratuentzako edo haien oinordekoentzako, beharrean suertatuz gero, laguntza izan zezaten.

Biltzarreko gehiengoak onetsi zuen erabaki harekin bat etorritik eta estatu kolpe haren eta geroko errepresioaren oroimen erdeinagarriarekin bukatzeko, oraindik ere horrek irauten baitu zenbait erakin ofizialetako sinbolo eta ikurretan, bai eta 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpe hartako aitzindarien izenak daramatzaten Nafarroako herri askotako kale eta plazetako izenetan ere, ondoko erabakia hartu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du ikur frankistak kentzeko, diktadorea hil eta denbora asko pasatu den arren, halako ikurrak mantentzen dituzten entitate guztietatik, esate baterako Nafarroako Aurrezki Kutxako egoitza nagusitik.

2. Nafarroako Parlamentuak Barasoain, Cadreita, Caparroso, Corella, Fustiñana, Lapoblación, Marcilla, Mendavia, Milagro, Elo, Murchante, Pitillas eta egoera berean dauden Nafarroako herri guztietako udal agintariei proposatzen die Parlamentuko Osoko Bilkurak berriaz gaitzetsi zuen matxinada militar frankistaren protagonista nagusien oroimenez jarritako kale izenak aldatzeko.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua A-15 eta A-68 autopisten emakidaren akordioa berrikus dezan premiatzen duen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dadin.

Duela gutxi, Kontuen Ganbarak A-15 eta A-68 autopisten kontzesioen erreskatearen kostua dela-eta egindako aholkularitza-txostenaren berri izan dugu.

Txosten horrek garrantzizko iritziak dakartzat gai honen inguruan sortutako eztabaidara, bai kontratuari bai ekonomiari dagokionez. Hala, azken hilabete hauetan zehar zenbait alderdi politikok, udalek eta gizarte eragilek emandako argumentuak zuzenak direla erakutsi du.

Hain da agerikoa ezen errepide horren doakotasunaren aurka zegoen alderdi politiko bakarrak mehatxura jo behar izan baitu, Nafarroaren bidegarritasun ekonomikoaren arriskua eta Biltzarra deuseztu daitekeela aipatuz.

Kontuen Ganbarak egindako txostenak, aipatutako ekintzaren kostu ekonomikoa zenbatzeaz gain, bestelako gogoeta batzuk ere egiten ditu. Horien artean bada garrantzi berezia duen bat, kontzesioa atzeratzeko kontratuari buruzkoa.

1997ko abenduan, Nafarroako Gobernuak, Enausak eta Audenasak kontzesio epea 2014. urtetik 2029 urteraino luzatzea erabaki zuten. Horren truke, eta bestelako aurreikuspen eta konpromisoez gain, bidesariak merketuko ziren.

Horrela, hasierako kontratuaren aldaketa bat planteatu zuten. Aldaketa hori zegokion espedientearen bidez izapidatu behar zen eta bertan, beste jardueren artean, departamentuko zerbitzu juridiko eta kontu-hartzailetzako zerbitzu bakoitzaren txostenak bildu beharko ziren. Kontuen Ganbarak dioenez, ez dago horrelakorik aldaketaren espediente horretan.

Administrazioak, beraz, gabezia horiek garrantzizkotzat jo litzake eta ondorioz, erabaki hori ofizioz berrikustea eskatu, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 102. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz.

Berrikuspen hori egingo balitz eta luzatzeko erabaki hori deuseztu, ondorio ekonomiko garrantzitsuak izango litzake A-15 autopistaren kontzesioaren erreskatea egiteko, kontuan hartu beharreko erreferentziako data 2015. urtea izango bailitzateke eta ez 2029a. Erreskatearen balorazio ekonomikoa, data hori erreferentzia moduan hartuta, 6.372 eta 8.750 milioiren artean legoke.

Elementu guzti horiek kontuan hartuz, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko erabakia hartzea proposatzen dio Biltzarrari:

“Kontuen Ganbarak 2000ko maiatzaren 4an egindako fiskalizazio txostena kontuan hartuz, Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroako Gobernuak, Enausak eta Audenasak 1997ko abenduan hartutako erabakia ofizioz berrikus dezan, hasierako kontratua aldatzeko espedienteak berorren deusezteka ekar dezaketenean gabezia garrantzitsuak baititu.”

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ospitaleak berritzeko plan bat egin dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernua ospitaleak berritzeko plan bat egin dezan premiatzeko aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batuak Nafarroako ospitaleen errealitatea ezaguturik, bere logelen % 15 soilik baitira banakakoak eta ia % 8 bi gaixo baino gehiagorentzakoak, uste du banakako logelak izanen dituen ospitaleen

sare publiko bat lortzeko aurrerapausu tinkoak eman behar direla, arian-arian.

Eskari hori egiteko nahikoa argumentu dira ospitaletako osasun laguntzaren kalitatea, gaixoa- ren pribatutasuna eta tratamendu anbulatorioak gehitu izana. Beharrezkoa da gai horietan aurrerapausuak ematea gure osasun sistema publikoan, oinarritzakoak baitira gaixoari ematen zaion laguntza hobetzeko, eta hori ospitale pribatuen sarean jadanik badakite. Bestalde, estatu mailako alderdi politiko guztiek antzeko neurriak eskatu zituzten aurreko hauteskunde kanpainan.

Horrenbestez, IUN-NEB Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du.

Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernua premiatzen dute legegintzaldi honetan Ospitaleen Erreformatarako jarduera Plan bat presta dezan. Plan horren helburua izanen da banakako logelak bikoiztea; horrela, 2003an banakako logelak % 30era iritsiko dira, gaur egun birentzako edo askorentzako logelak direnak banakako bihurtuz eta, oro har, ospitale berriak eraikitzerakoan soilik banakako logelak eginez.

Iruñean, 2000ko ekainaren 1ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberriko eskualdeko jarduera eta enplegua mantentzen

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberriko eskualdeko jarduera eta enplegua mantentzen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria, Lan, Mertakaritza eta Turismo Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko bozeramaile Juan José Lizarbe Baztánek, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren babesean, mozio bat aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erriberriko eskualdeko jarduera eta enplegua mantentzeko.

“Eurovestir, S.A.” enpresako ordainketak eteko prozesuaren baitan, datorren ekainaren 8an hartzekodunen batzarra eginen da. Bertan, antza denez, enpresaren erabateko likidazioari ekingo diote.

Bada, enpresako ondasunak era ordenatuan likidatu ahal izateko, horrek hartzekodunen artean euren ekoizpen instalazioen sakabanaketa ekidinen baima, enpresako langileek beraien kontratuak amaitzeko erabaki bat sinatu zuten Lan Auzitegian. Horrela, etorkizun hurbilean eta enpresaren proiektu berri batekin, berriz ere jardunean hastea ahalbidetu nahi dute eta baita enplegua salbatu ere.

Zalantzarik gabe, prozesu horrek nabarmen areagotuko du eskualde horretako langabezi tasa, batez ere emakumeena.

Horregatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du.

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erriberriko eskualdeko jarduera eta enplegua mantentzeko bere esku dituen ekintza guztiak berehala burutu ditzan, enpresarako proiektu berri bat bilatzeko eta daudenei eusteko.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behin betikoz bultza dezan Tafalla-Erriberriko La Nava industrialdearen handitzea; helburua da sortutako kaltea arintzen lagun dezaketen enpresak paratzeko behar-beharrezkoa den industri lurzorua edukitzea.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Erriberriko Udalarekin elkarlanean, oraindik ere eskuragarriago egin dezan Nafarroan –eta bereziki kaltetutako eskualdean– sortzen diren enplegu eskaintzei buruzko informazioa, eta langabezira joandakoen ezaugarriak dauden lanpostuei zein sortzen ahal direnei egokitzeko beharrezkoak diren prestakuntza programak areagotu ditzan.

Iruñean, 2000ko ekainaren 5ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sare publikoko ospitaleetan RU 486 botika jar dezan

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun sare publikoko ospitaleetan RU 486 botika jar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak,

2000ko ekainaren 6an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko apirilaren 11ko 32 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza-ugalketarako hainbat bide osasun-prestazioen artean sartzeko neurriak har ditzan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Osasun Batzordeak, 2000ko ekainaren 6an eginiko bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza-ugalketarako hainbat bide osasun-prestazioen artean sartzeko neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da giza-ugalketarako hainbat bide osasun-prestazioen artean sartzeko neurriak har ditzan

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezko neurriak hartzera, giza ugalketa lagundua, intseminazio artifiziala eta in vitro ernalkuntza, osasun zerbitzu gisa, Nafarroako osasun sare publikoan sar daitezzen eta zerbitzu horiek aurten funtzionatzen has daitezzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, itxaron zerrendan dauden Nafarroako 142 bikoteei konponbide bat eman diezaien zortzi hilabeteko epean, giza ugalketa lagunduaren zerbitzua emateko itunduta dauden zentroak erabiliz edo itundu gabeko zentroetan bikoteei emandako osasun laguntza ordainduz."

F saila:
GALDERAK

Biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruzko galdera

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak biltzar jauregi eta auditorioaren obrei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioaren eraikina egiteko obrak direla-eta, besteak beste

Santa Teresa lunetan kalteak eragin ditzakeen eraispenak gertatu direla San Anton bastioian jakin izan dugu.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

– Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak baimenik eman al du San Anton bastioian, eta zehazkiago Santa Teresa lunetan eraispenak egiteko? Hala baldin bada, zer arrazoi eta zer txostenetan oinarrituta eman da baimena?

– Ba al da Vinako Printzea Erakundean txostenik, gutunik, agindurik, ebazpenik edo beste edozein motatako agiririk –barnekoa zein kanpokoak– San Anton bastioian, eta zehazkiago Santa Teresa lunetan eraispenak egiteko baimena ematen duenik? Hala baldin bada, haren edukiaren berri izan nahi dugu.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruzko galdera

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak SPI Navarra Virtual, SA sozietatea eratzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz, honako galderak egin dizkio Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaien:

Jakin al du Nafarroako Gobernuak SPI Navarra Virtual SA sozietatea eratu dela?

Eman al du Nafarroako Gobernuak enpresa hori eratzeke jarraibiderik, enpresa publikoetan

dauzkan ordezkarien bitartez edo Gobernuak parte -hartzea duen beste enpresa batzuen bitartez?

Baiezkoan, zein izan dira Nafarroako Gobernuak izan dituen arrazoiak enpresa publikoen bitartez edo bera partaide den enpresen bitartez aipatu enpresa eratzeke?

Zein da enpresa horren helburu soziala?

Zein da haren kapital soziala?

Ba al dago Navarra Virtual SA enpresaren administrazio kontseiluan edo bestelako organo sozialetan enpresa publikoetako edo Nafarroako Gobernuak parte duen enpresetako zuzendaritzari loturiko pertsonarik?

Nor dira enpresa horren administrazio kontseiluko partaideak?

Ba al dago enpresa horretan bestelako organo sozialik? Nork osatzen dituzte?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 26an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Hainbat espezialitatetako itxaron zerrendei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo foru parlamentari andreak hainbat espezialitatetako itxaron zerrendei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko osasun gaietarako eledun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzun diezaioten.

Joan den legegintzaldiaren bukaera aldean, agerraldi bat izan zen itxaron zerrenden egoerari buruz, gure Parlamentuko Taldeak hala eskatu ondoren, ederki asko genekielako herritar asko daudela luze itxaroten espezialitateetako kontsultetara –bai lehenbiziko kontsultara eta bai berri-kusteko kontsultara– joateko. Kontseilariak emandako informazioaren arabera, itxaroten zeuden gaixo guztiak itxaron zerrenden bitartez kontrolatuturik zeuden.

Itxaron zerrendak kontrolatzeko Osasun Departamentuaren barneko mekanikaren berri izateko modurik izan ez dugunez, ezinezkoa izan zaigu zehatz jakitea benetan zenbat herritar dauden kontsulta baten zain –itxaroten egonda ere ez baitira agertzen itxaron zerrendetan; izan ere, gai-

xoak itxaron zerrendetan sartzan dira kontsultara joateko egun jakin bat finkatu zaien unean—.

Azken bolada honetan, gaixoei kontsulta espezializatu baten amaieran jakin ohi dute sei hilabete edo urtebeteren buruan berrikusketa-kontsulta batera itzuli beharko dutela. Hala ere, espezialistak azterketarako ezarri duen epe hori iraganik, gaixoei kontsultaren eguna zehaztuko dien eskutitza noiz etorriko den zain jarraitzen dute askotan. Batzuetan, halako berrikusketa-kontsultak hamar hilabetez ere atzeratu izan dira, eta azkenean gaixoak zita bat lortu du Eriaren Arazo-etarako Atalera joan ondoren. Esate baterako, gertatu izan da alergologia kontsulta batean 1998ko maiatzean espezialistak esan urtebeteren buruan gaixoa berrikusketara itzuli behar dela eta 2000ko martxoan joatea.

Atzerapen handi horiek erresonantzia magnetikoa bezalako frogetan ere gertatzen dira. Gerta daiteke Traumatologiak otsailaren 25 batean halako frogatik eskatu eta urriaren 17an egitea: zortzi hilabeteko atzerapena, eta gaixoak hori jasan ahal izateko analgesikoak hartu beharra, diagnostikorik izan ez eta behar den tratamendua eman ez zaiolako.

Hauxe da gure galdera: zein itxaron zerrendetan daude frogetarako eta berrikusketa kontsultetarako hilabetetako atzerapena jasan behar duten eriak? Izan ere, gertatu izan baita, zortzi hilabetez itxaron eta gero, eriak galdetzea ea itxaron-zerrendan badagoen, eta ordenadorean lanean ari den funtzionarioak erantzutea ez dagoela itxaron zerrendan. Eta, hala ere, argi dago gaixoa kontsulta baten zain dagoela. Ez da ongi ulertzen noiz eta nola sartzan den pertsona bat itxaron zerrendan, eta ezin dugu asmatu zein den zerren-

dan itxarotearan eta eri dauden herritarrek jasan behar duten benetako atzerapenaren arteko diferentzia.

Hori guztia dela eta, ondokoa jakin nahi dugu:

1) Zein da egun gaixoei eskatutako berrikusketa kontsultetarako eta frogetarako batez beste jasan behar duten atzerapena eta zein benetan gehieneko atzerapena, bereziki gaixo kronikoen kasuan eta ondoko espezialitateei dagokienez:

Digestio aparatua, alergologia, anestesia eta konteratze atala, zirujia orokorra, aurpegi eta masalezurreko zirujia, zirujia plastikoa, kardiologia, dermatologia, dietetika, endokrinologia, ginekologia, barne medikuntza, neumologia, neurologia, otorrinolaringologia, obstetrizia, oftalmologia, haurren oftalmologia, psikiatria, traumatologia, haurren traumatologia, urologia eta abar.

2) Nola kontrolatzen dira itxaron zerrendetan ez dauden gaixo kronikoen itxaronaldiak, espezialistak ezarritako epe batean egin beharreko berrikusketa-kontsulta baten zain daudenean?

3) Zein arau daude O-NOZen espezialitateetako itxaron zerrendetan gaixoak sartu eta irteteari dagokionez?

4) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gaixoei zerrendetan itxaron behar duten denbora egun bat al dator berrikusketa-kontsultetara joateko benetan jasan behar izaten duten atzerapenarekin?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

Eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruzko galdera

FERNANDO VIEDMA MOLERO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak eskualdeko hirigintza arauen tramitazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, Gobernuaren hirigintzaren arloko politikaren zenbait alderdiri buruzko hurrengo galdera egin du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek jakin nahi du zein den Eskualdeko Hirigintza Arauen (EHA) tramitazioaren egoera. Jakina da Iruñeko eta Iruñerriko EHAk jada onetsita daudela; hala ere, gainerako eskualdeetan, zenbaitetan tramitatzen ari dira (Goiko Erribera eta Beheko Erribera) eta beste zenbaitetan (Lizarra, Zangoza eta iparraldea) oraindik ere ez dira hasi tramitatzen. Jakin nahi dugu, gainera, Foru Komunitatean nola ari den aplikatzen Eraikuntza Antolatzeari buruzko Legea.

1. Zein fasetan dago Eskualdeko Hirigintza Arauen tramitazioa?

2. Noizko aurreikusi du Gobernuak haiek tramitatzen hastea oraindik ere hasi ez den eskualdeetan, eta noizko aurreikusi du tramitazio hori bukatzea, bai hasi gabe daudenetan eta bai tramitazioa hasita dagoen kasuetan?

3. Bestalde, Eraikuntza Antolatzeari buruzko Legeak –1999ko urrian Diputatuen Kongresuak onetsi eta 2000ko apiriletik du indarra– helburu du eraikuntza prozesua, bere oinarriko alderdietan, arautzea eta prozesu horretan esku hartzen duten agenteen betebeharrak eta erantzukizunak ezartzea, eraikinen kalitatea era erabiltzaileen interesen babes egokia bermatzeko. Lege hori foru legediari egokitu behar zaio. Horretarako:

Zein aurreikuspen ditu gobernuak lege hori foru legediari egokitzeko, eta nolako balioespina egiten du hark etxebizitzaren salneurrietan izan dezakeen eraginari buruz, kalitatea eta erabiltzaileen bermea direla eta?

Iruñean, 2000ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruzko galdera

FERNANDO VIEDMA MOLERO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du Lehendakariak, Justizi eta Barne Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Lehendakariak eta Barne kontseilariaren irailaren 14ko 137/1998 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako Gobernuko giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazio integralerako behar diren zerbitzu informatikoen kontratazioa "Informática El Corte Inglés SA" enpresari esleitu zitzaion. Baldintza orokorrek ezartzen zutenek, kontratuaren aurrekontua 170.000.000 pezetakoa zen eta exekuzio epea urtebetekoa.

Exekuzio epea bukatu zenetik bederatzi hilabete igaro direnean, parlamentari honen iritziz, interesgarria da gaiaren beste xehetasun batzuk ezagutzeko, Lehendakariak kontseilariaren 2000ko martxoaren 2ko erantzunean aipatzen zirenez gainera.

1. Atzerapen egun bakoitzeko kontratuan aurreikusitako 25.000 pezetako zehapena bete al da, kontuan harturik kontratua betetzeko epea 1999ko urriaren 5ean bukatu zela?

2. Zehapen hori zenbat pezetakoa da gaur?

3. Zenbat diru kobratu du “El Corte Inglés SA” enpresak eta noiz kobratu du?

4. Nolako emaitzak izan dituzte aurreko mar-txoan egiteko aurreikusita zeuden nominen frogek eta paraleloek?

5. Noizko aurreikusi du gobernuak egitura organikoaren eta lanpostuen kudeaketaren moduluak ezartzea?

6. Zergatik ematen zaio lehentasuna nominen moduluari, pakete integratu bat izaki?

7. Posible al da Nafarroako Gobernuaren nominen sistema indarduna hobetu edo/eta egu-neratzea?

8. Zenbateko kostua izanen luke hobekuntza edo/eta eguneratze horrek?

9. Egin al du Nafarroako Gobernuak audito-re-tzaren bat adjudikazioari buruz edo proiektuaren funtzionamendua abian jartzeko prozesuari buruz?

10. Auditoretzarik egin bada, haren dokumen-tazio osoaren kopia nahi dut.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 29an

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero

Aranguren eta Eguesibarko udalez gaindiko planari aurkeztutako alega-zioen ebazpenari buruzko galdera

JOSE ANDRES BURGUETE TORRES FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, José Andrés Burguete Torres foru parlamentari jaunak Arangu-ren eta Eguesibarko udalez gaindiko planari aurkeztutako alegazioen ebazpenari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parla-mentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatua-ren babesean, hurrengo galdera egin dio Nafa-rroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak, 1999an Zoliako hiri bio-klimatikoaren berri emateko Biltzarrean izan zuen agerraldi batean, baieztapen jakin batzuk egin zituen, eta Parlamentuko talde honek jakin nahi luke ea betetzen edo prestatzen ari diren, kasuan kasu. Hori dela eta, jakin nahi dugu:

1. Aipatu agerraldian, kontseilariak adierazi zuen “udalez gaindiko eraginari buruzko planari

aurkeztutako alegazioak erabaki gabe zeudela”. Erabakirik hartu al da aipatu alegazioei buruz? Nolako erantzuna eman zaie?

2. Kontseilariak adierazi zuen “bi entitateekin (Eguesibarra eta Aranguren ibarra) hitzarmen bat egin nahi zen, etorkizuneko hiri bioklimatikoaren antolamendu administratiboaren, zerbitzu-ematea-ren eta kudeaketaren arazoak erabakitzeko”. Garatu al da ukitutako toki entitateekin sinatu beharreko hitzarmena? Noizko aurreikusi du Departamentuak hitzarmen hauek sinatzea ukitu-tako toki entitateekin? Izan al da bilerarik udaleta-ko erantzuleekin gai hori erabakitzeko bidean aurrera egiteko? Azken bolada honetan izaniko bileren zerrenda eduki nahi dugu, zehaztuz bilera horiek zein egunetan egin ziren.

3. Kontseilariak baieztatu zuen “beharrezkoa zela hiriak bere energiaz hornitzeko eta eraginkor-tasun energetikoa izateko benetako aukerak azterlan batean zehaztea, diseinaturiko urbaniza-zioa kontuan harturik.” Zein dira urbanizazioak bere energiaz hornitzeko benetako aukerak eza-gutzeko prestatu diren neurri zehatzak? Industri Departamentuarekin batera egin al da lan balizko konponbideak elkarrekin jartzeko? Bilerarik egin bada, bilera horien zerrenda eduki nahi dugu, egunak zehaztuta.

4. Etxebizitzak eraikitze ordenantza batzuk ezartzea –halako malgutasun batez promotoreak behartzeko diseinu baldintza batzuk betetzera edo

helburu horiek beste konponbide batzuk erabiliz erdietsiko direla justifikatzera—, kontseilariaren hitzetan, zen lortzeko beste helburuetako bat. Zein neurri hartu dira gaur arte gai horri buruz? Horrelako ezaugarriak dituen irizpideak sartzeko lege aldaketaren bat egitea aurreikusi al da? egin al da bilerarik udalekin haien iritzia entzuteko eta kontuan hartzeko, hirigintzaren arloan eta toki planeamenduan duten eskumena oinarri harturik?

5. Zoliako hiri bioklimatika Iruñerriko garraio publikoaren sarean sartu behar da, kontseilariaren hitzetan. Zein dira helburu hori lortzeko eman diren urratsak? Egin al da bilerarik Iruñerriko Mankomunitateko eta Nafarroako Gobernuo Garraio Zerbitzuko arduradunekin? Biler horien zerrenda eta zein egunetan egin ziren jakin nahi dugu. Eskualdeko Garraio Planean aldaketaren bat egiteko proposamena egin al da?

6. Lurrak erosteari dagokionez, kontseilariak adierazi zuen lurrak Potasas de Subiza SA sozietate publikoarenak direla eta Posusako ustiategiak kutsatutako lurrak leheneratzearen kostu ekonomikoa ordaintzeko Zolian dituen lurrak saldu beharrean dagoela. Halaber, adierazi zuen "mila miloi horiek hor daudela, bete ez den erosketaukeran". Baieztapen horien aurrean, Zoliako lurrak erosteko aukera hori bete al da? Jaso al du Nafarroako Gobernuak edo Namainsa sozietateak Industri Institutu Nazionalak kutsatutako lurrak leheneratzeko emateko zituen mila milioi horiek? Nafarroako Gobernuak edo Namainsa enpresak erosketaukera horretaz baliatu ez badira, noizko aurreikusi da hura betetzea?

Iruñean 2000ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruzko galdera

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Autonomia erkidego mugakideetako gobernuekiko lan dinamikari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Parlamentuko Erregelamendua-ren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

Joan den maiatzaren 30ean bilera bat egin zuten Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Aragoiko Gorteetako Gobernuaren ordezkariak, bien intereseko zenbait gai aztertzeko.

1. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak horrelako lan dinamika batean jarraitzea mugakide ditugun gainerako autonomi erkidegoetako gobernuekin?

2. Zein egun aurreikusi ditu horretarako?

3. Ba al dago erkidego mugakideren bat zeinarekin Nafarroako Gobernuak erabaki duen ez biltzea? Zergatik?

4. Aurreko galderari baieztoko erantzuna eman ez gero, uste al du zure Gobernuak erabaki horrek Nafarroan ukitutako herritarrek ez dituztela gainerako nafarrek dituzten eskubide berak, bizi diren eskualdeetan dituzten arazoak beren interesetarako modurik onenean konpontzeko?

5. Une honetan, konponduta al daude, zure iritziz, beste erkidego batzuekin mugakideak diren Nafarroako eskualde guztietako hezkuntza, garraio, osasun, hondakinen bilketa eta abarreko arazoak?

Iruñean 2000ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

AHTa dela-eta Aragoiko Gorteekin lortutako akordioari buruzko galdera

JOSE M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 5ean egindako bilkuran, José M^a Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak AHTa dela-eta Aragoiko Gorteekin lortutako akordioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuo Herrilan kontseilariari idatziz erantzun diezaion:

Joan den maiatzaren 30ean bilera bat egin zuten Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuaren eta Aragoiko Gorteetako Gobernuaren ordezkariak, bien intereseko zenbait gai aztertzeko.

Horien artean, akordio batera heldu ziren 2002 urtean abiadura handiko tren (AHT) Zaragozara iristen denerako abiadura handiko edo prestazio altuak dituen tren linea bat egon dadin Iruña eta Aragoiko hiriburua lotzeko ordu erdi baino gehixagoko denboran.

1. Noraino du aztertuta Gobernuak balizko trazadura?

2. Zein izanen litzateke Europarekiko lotura lehen aipaturiko alternatiba hori gauzatzuz gero?

3. Trenbide tarte hori noraino dago lurraldean definituta?

Iruñean 2000ko maiatzaren 31n

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko Gelazain Nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia

Onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda

Deialdia Mahaiak onetsi eta 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, Lehendakari honek, aipatu deialdiko 4. oinarrian ezarritakoarekin bat,

ERABAKI DU:

1. Ondoren transkribatzen den onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onestea.

Onartuak:

Enecoiz Segura, Florencio José

Ansorena Urriza, Antonio

Baztertuak:

Inor ez.

Behin-behineko zerrenda honen aurka egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izanen dira, bai eta egindako balizko akatsak zuzendu ere, 5 egun naturaleko epean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat..... 6.200 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------